


E GASTEIZ



Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

FRANKEO ITUNDUA 48/27



Miserableak

Gasteizen ikusgai



kide

APAINDURA

Cercas Bajas, 27

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



Florida Azoka ☎ 13 24 48
2 eta 3
Abastos Azoka ☎ 26 78 97
2 eta 3
GASTEIZ



JOSEBA
HARATEGIA
PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ

**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**

*aukerarik zabalena
kalitaterik onena*

Miserableak

Orkestra gazte baten ametsa egia bihurturik.

16. orrialdea



2CV:

Kotxe bat baino askoz gehiago.

9. orrialdea



PRO-ISMO 0 antzerki talderekin hizketan

inkestak

...eta askoz gauza gehiago.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Hamabost urte lanean, hamabost urte kalean

Hilabete honetan Euskal Herrian Euskaraz-ek bere

hamabostgarren urtemuga ospatuko du. Hamabost urte pasa dira EHE sortu zenetik eta urte guzti hauetan egunero euskararen aldeko ekimenak bultzatzen eta gure hizkuntzaren aldeko burrukan ibili gara, gehienetan ere erasoen aurreko erantzuna emanez. Euskal Herri osoan eta Gasteizen euskararen egoerak aurrepausua garrantzitsuak eman baditu ere, gure sorreran eragina izan zuten arrazoiek bizirik diraute. Beharraren beharrak eraginda sortutakoa bada EHE, oraindik behar horien gorria euskaltzale guztien begi-belarrietan dago.

Zaila eta luzeegia da urte hauetan egindako lana laburbiltzea. EHEren sorrerak euskalgintzarako beste dinamika bat, hots, herritarra, ideologizatua eta esparru desberdinetara zabaldua, ekarri zuen. EHEk euskararen auzia kaleratu zuen mobilizazio, aldarrikapen eta salaketa dinamikaren bidez eta bide horretatik jarraituko dugu.

Errotulazioa eta administrazioa hasieran, Euskal Telebista eta irratien aldeko iharduera beranduxeago, alderdi politikoak eta sindikatuak, euskal kulturagintza, Prentsa idatzia eta publizitatea geroago, Udalerrri euskaldunak, Euskal Txokoak eta Euskara elkarteak beranduago... Arlo guzti hauek, beste batzuekin batera, gure kemena izan eta izaten dutenak dira. Batzutan asmatu dugu eta beste batzutan huts egin, baina argi dago hizkuntzaren aldeko ekimen guztiak beharrezkoak direla, eta askotan herriak agintariak baino azkarrago eta argiago somatzen dituela beharrak.

EHEri euskalgintzako irudi gogorra leporatu zaio askotan bere izaera herrikoia, kale dinamika bultzatzeagatik eta gure lana salaketa-ekintzetan oinarritzeagatik. Gure



iharduera salatzaileak gehienetan eragina izan du, gizartearen oihua eta zenbait instituzioen euskararekiko borondate eta gogo ezaren adierazle izan den neurrian. Ibilbide hau ez da izan ez homogeneoa ez lineala ez guztion gustokoa, baina iragana ahaztu barik aurrera begira jarri behar gara.

Desoreka handiak ditugu oraindik lurralde batetik bestera, eta guztion lana da egoera hau gainditzea. Ez dezagun ahaztu euskararen izaera ofiziala eta egoera ere oso desberdina dela Euskal Herriko herrialde desberdinetan. Araban, EHEk euskaltzaleon ahotsa izan behar du, erasoan aurrean erantzuna emateko, eta garrantzitsuagoa dena: gure lana pixkanaka-pixkanaka ondo burutzeko. Horretarako EHE bera indartu beharra dago herrialde osoan, eta 15. urtemuga honetan burutuko ditugun ekintzak lagungarriak izango direlakoan gaude.

Hala ere, burutuko ditugun ekintza hauek urte osoan zehar aurrera eramane behar dugun plangintzaren barnean kokatu behar ditugu. Izan ere, gure lana ez dugu ekintza puntualetan oinarritu behar, baizik eta urte osoan jo eta su ihardun behar dugu.

Beraz, EHEk Gasteizko euskaldun guztioi gonbidapena luzatu nahi dizue: 15. urtemugako ekintzetan -euskararen alde burutzen diren guztietan bezalaxe- parte har ezazue, eta aldi berean euskalgintzan esku har ezazue. Euskarak gizarte honetan berari dagokion tokia hartuko baitu egunez eguneko erabilpena eta borrokaren bitartez.

Alfontso Sanz Laguardia
Arabako EHEren koordinatzailea

GEU GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon
Aldizkaria

1691 Postakutxa
Tfnoa 26 25 92



elkartearen babesarekin
5.000 Aleko Tirada
Lege-Gordailua VI-582/92
ISSN: 1133-0988

Erredakzio-batzordea: Xabier Etxaniz, Mikel Garmendia, Patxi Salaberri **Kazetariak:** Leire Lopez de Aberasturi, Asier Perez de Karkamo, Ismael Diaz de Mendibil, Susana Calleja, Itziar Mtz de Santos, Lorea Zubimendi, Miel Anjel Elustondo **Koordinatzailea:**

Inaxio Lopez de Arana **Komikia:** Iñigo Sarasola **Marrazkiak:** Aitziber Iriondo **Maketazioa:** Iñaki San Pedro, Alex Badillo **Publizitatea:** Rakel Peña, Martin Rezola **Argazkilariak:** Lukas Etxeberria, Joseba Olalde, David Aguilar, Joseba Unzu, Jon Onaindia **Kolaboratzaileak:** Txipi Ormaetxea, Oier Zulaika

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Onati)
GEU GASTEIZek ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzunkizunik

EG GASTEIZ aldizkaria etxean dohain jaso nahi dut.

IZENA: _____

ABIZENAK: _____

KALEA: _____ ZKIA: _____ Pisua: _____

Kode Postala: _____

HERRIA: _____

kalea mintzo erdialdeko peatonalizazioaz

Kazetariak: Juan Jose Kastresana "Gutxi" • Argazkiak: Joseba Unzu



MIRIAN ERIZ
irakaslea



VALE TENA
langabea

1. Oinezkoentzat primeran eta gainera, hiriak ere asko irabaziko luke. Baina beti ere trafikoa bideratzeko irtenbide egoki bat ezarriko balute.

2. Ez. Oinezkoen esparrua handiago egin liteke baldin eta aurretik ikerlan bat egiten bada eta hor frogatzen bada horretarako ez legokela inolako oztoporik.

1. Oso ondo. Halere, horrela izatekotan, aparkalekurik ere egin behar dute. Nahiago dut Gasteizko erdialdean paseatu gidatu baino.

2. Ez dakit, sakonki pentsatu behar da hori eta hiritarroi galdetu.

Presaka nabil orain berandu da eta lehenengo orduan dut Mate azterketa. Egoera ikusita, hartu bizikleta ta Koldo Mitxelena da gaur nire meta, behintzat gaudituko dut ziur nik soinketa

Azkar korrika noa Indurain antzera ta harrapatu ditut lau txakur batera, kotxe batek bota nau gogorki lurrera Munipa batek jarri dit multa gainera hiri hontan txirringaz ezin da atera

BERTSOAK

Ni eta nire
txirrindula

Miriam Gil Mediavilla



HEGOALDE
euskaltegia

Florida 58, behea
Tfnoa.
284196
01005 GASTEIZ

Hainbat urte dira oinezkoen esparruak Gasteizko hainbat kaletan ezarri zituztela. Bateratsu TAO (OTA gatzeleraz) aparkatzeko araudia jarri zuten indarrean. Oraintsu irakurri ahal izan dugu hainbat komunikabidetan Gasteizko erdialde osoa oinezkoen esparru bihurtu

nahi dutela. Trafikoa hobetze aldera hartutako erabakiok, antza. Baina, gasteiztar guztiok auzi horretan zeresan askorik badugula sinetsirik, oraingoan euskaltegi bateratz abiatu gara eta bertan euskara fin-fin ikasten ari ziren lagun batzuei horretaz galdegin

1. Zer deritzozue erdialdea peatonalizatzeari ?
2. Ondo hartuko al genuke horrelako erabaki bat ?



MARIAN MARTINEZ
langabea

1. Ondo deritzot. Nik kotxerik ez dudanez, nire hankatxoak erabili behar izaten ditut.
2. Ez dut uste. Gero eta jende gehiagok du kotxerik eta jende horrek guztiak ez luke ondo hartuko horrelako erabakirik.



JUAN RUIZ DE
LARRINAGA
sendagilea

1. Nire ustez, proiektu ona da. Baina hori egiteko, aparkalekuen azpiegitura egokitu behar dute eta herri garraioa erabiltzera bultzatu.
2. Ez, ez gaude horretarako gertu. Egungo gizartean gero eta erosoago bihurtzen ari gara eta.



AMAIA BITERI
zerbitzaria

1. Oso gaizki, horrela ez dagoelako lekuri kotxea aparkatu ahal izateko.
2. Oso gaizki, horrela ez dagoelako lekuri kotxea aparkatu ahal izateko.



JAVIER BEITIA
irakaslea

1. Kotxez ibiltzen garenontzat oso triste da. Gero eta zailagoa da etxetik kotxearekin ateratzea.
2. Egia esanda, nik ezetz uste dut. Oinezkoen esparruarena proposatzea primeran dago baina askoz ere zailagoa da hori gauzatzea gero

ALDA EZAZU BIKOTEA HILABETERO



EROSOAGOA DA ETA

MULTILENS botatzeko lenteak

Ukipen lenteen abantail guztiak eta hilabetero berriak jatzeko erosotasuna.

Erabili... eta bota. Horren erraza. Eta horregatik, beti ikusmen bikaina, ixurkari bakar bat eta begientzat ziurtasun osoa.

Eta ez dira lentixka arruntak baino garestiagoak!


MULTILENS botatzeko lenteak: Erosotasuna ez baita botatzekoa.



6 LENTIXKETAKO
KUTXATILA:
BAKARRIK 6.000 PTA.

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS
Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Gasteizko karta museo berria



Askotan kutxillaria kaletik pasatzerakoan Abendaño jauregia jakinminez begiratu eta zera galdetu diogu geure buruari: "Zer ote dago barruan?". Honez gero, gehienok badakigu zein den barruko maizterra. . Eraikin handi horretan dugu irailaren 27an irekitako Karten museoa. Bertara jo dugu eta museoko zuzendaria den Josetxu Egiarekin hitzegin ondoren, jarraian duzue hark esandakoen arteko emankorrena.

KARTA MUSEOA hasiera hasieratik Heraclio Fournier S. A. lantegiari loturik egon da. Beraz, ez da harritzekoa entpresaren zuzendari nagusiak museoa sortu izana 1916an. Urte horretan Felix Alfaro Fournierrek bere aitona Heraclio Fournierren oinordekotza hartu zuen. Egun horietan ilobak bi karta mitologiko mordo aurkitu zituen bere aitona mahaian. Horrela hasi zuen, bi karta mitologiko multzo horiek baliatuz, 3.500 karten bilduma. Nork pentsa zezakeen honaino helduko zenik.

“**Kanpoan gure lurraldean baino ezagunagoa dugu karten museoa**”

Adurtzatik Alde Zaharrera

Arabako Foru Aldundiak 1986an bere egin zituen lehengo lantegiaren fondo guztiak, urte horretan erosi baitzuen entpresa. Beraz, 1986ra arte museoa Adurtzako lantegian bertan ezarria zegoen. Gaur egun, berriz, gune berri bat eskeini diote Abendaño jauregian. "Museoa tokiz aldatzea erabaki genuen, karta asko leku bakar batean biltzen ari zirelako; batzuk, gainera, izugarritzko garrantzia zuten ikuspuntu historiko eta artistikotik", jakinarazi digu Josetxu Egiarek museoko zuzendariak.

Museoaren zoko-mokoak

Museoan barna eginez gero, berehala ohartuko gara karten erakusketarako ez

ezik, beste gauza batzuetarako ere lekuri dagoela eraikinean. Azpiko solairuan kartagintzarako aintzinako makinak daude: egurrezko tresnak, xafla kilografikoak eta litografikoak. Beste sail batzuk ere badaude, besteak beste, bulegoak eta hitzaldietarako gelatxo bat, zeinetan eskoletako umeentzako ikastaroak ematen baitira. Eta azkenik, goiko bi solairuetan karten erakusketa dugu. "Berez, 15.400 karta ditugu, baina 3.500 baino ez ditugu erakusgai. Karta horiek etengabe aldatzen ditugu jendeak guztiak ezagut ditzan", esan digu Josetxu Egiarek.

Museoa ireki zutenetik denbora gutxi igaro den arren, 300 bisitari inguru izaten dituzte egunero, Josetxu Egiarek arabera. Bere ustez, arrakasta horren arrazoiak honako bi hauek izan daitezke:



berritasuna edo jendeak karteetarako duen zaletasuna. Bigarrenaren aldeko apustua egiten du zuzendariak. "Artistikoak eta historikoak diren objektu batzuk zaintzea eta gordetzea" da museo irekitzeko helburua.

Naipen edukinari dagokionez, gai ugari bereiz ditzakegu, hala nola, grafikoa, historikoak eta beste. Lehengo eraikinak balio handiko kartak gordetzen zituenenez, horientzako bizileku berri eta

egoki bat behar zela geratu zen agerian.

Mundu mailan dagoen museorik garrantzitsuena dugu hau. Estatuan bi karta lantegi ditugu: Gasteizko hau eta Bartzelonan dagoen beste bat.

Europa mailan, aldiz, Frantzia, Belgika, Alemanian, Italian eta Suizan ditugu karta lantegiak.

Bere hitzetan, gasteiztarrok eta euskaldunok berari eman nahi diogun garrantzia du museoak, ez gehiago ez gutxiago. "Baina, zoritxarrez, ezagunagoa da kanpoan gure lurraldean baino". Museoko langileak hizpidera ekarrita,

“Mundu osoko 3.500 karta dituzte erakusgai, oratarra 15.400 bilduagatik ere”

"jende asko ibiltzen da jo eta su egunero, bai funtzionarioak garenok bai eta ez direnak ere. Jende askok kartak eman edo utzi egiten dizkigu eta lagun horiek ere, neurri handi batean, lan egiten dute gurekin". Hainbat jende atzerrira joanda, karta mordoak ekartzen ditu eta museokoei eman. "Horien lana ere oso eskertzekoa da". "Gu gogotik saiatzen gara museora datozen guztiek mundu osoko kartak ezagut ditzaten".

Susana Calleja



Kartagintzaren bilakaera

- ❑ 1. era: Guztia eskuz egitea. Lehenengo marraztea eta gero kartak barnetik margotzea.
- ❑ 2. era: Industri mailan lehenengo pausua ematen da. Kartoi batean soslai batzuk moztu eta gero ikatziri edo luma batez bazterrak marraztu eta aurreneko erara pintatu barnekoa "nurisca" estiloa erabiliz. Trepak:

kartoi berbera erabiliz baina gainetik pintzel (brotxa) batez ematen ziren koloreak.

- ❑ 3. era: Geroago egurrezko trokelak erabiltzen hasi ziren. Zurezko negatiboan zizelkatu, tintatu egiten dira figurak. Ondoren marrazki osoa azaltzen da. Gero hatzez edo pintzelez pintatzen da.

- ❑ 4. era: Litografia: sistema aurreratuagoa da hau, 1840ean sortua. Harriak lekukoa hartu zion egurrari.
- ❑ 5. era: Aluminiozko plantxak. Kolore guztiak erabiltzen dira.



Benito Ginea, 2 • Tfnoa: 25 75 14
GASTEIZ



Cercas Bajas, 8
Telefonoa eta Faxe 28 74 82
01008 GASTEIZ



Zerutik lurrari begira



EKLIPSEAK

Goian: Azaroak 3 Eguzki-eklipse osoa. Euskal Herritik ezin izango dugu ikusi. Eklipsearen esparruak Ozeano Baretik Madagaskarera hartuko du.

Behean: Azaroak 18 Zatizko ilargi-eklipsea. Ezingo dugu oso-osoa ikus, ilargia eklipsea amaitu baino lehen izkutatuko delako.

AURREKOETAN ESAN BEZALA, ondo aztertu behar ditugu urtean zehar gertatu diren eklipseak eta Jupiterrek uztaillean jasan zuen kolpea oraingo egoera egoki ulertzeko. Zeruak argi eta garbi adierazten digunez elkartasun eta elkarlanari ekiteko garaia da, dogmatismoak eta arrazoigabekeria alde batera utziz. Badago etorkizunik eta etorkizuna gure eskuetan dago.

Dudarik gabe, egoera ez da batere erraza, eta ez da erraza gure gizartean gero eta indibidualismo gehiago dagoelako, gero eta kontsumismo gehiago, gero eta dogmatismo handiagoak... "Daukagunaren" arabera balio dugu eta ez "garenaren" arabera. Zeresanik ez, ez dago horrela jarraitzerik, baino badago bide okerretik ateratzea eta konponbideak bilatzea.

Horretarako, gure jokaerak asko aldatu behar luke baina, dirudienez, batzuk ez daude ahalegin hori egiteko prest. Batzuk nahiago dute beren pribilegioei eustea nahiz eta, horrela jokatu, mundua galbidean jarri. Beste batzuk, munduaren amaiera dela eta ez dela, nahiago dute apokalipsiari buruz hitz egitea eta beren burua salbatzea. Bi horiekin, dudarik gabe, mundua pikutara joango zaigu. Horregatik gure eginkizuna orain arteko paradigmatik aldatzea da hori gerta ez dadin, eta hori bidezkoa delakoan nago.

Hori dela eta, azken boladan denetatik ikusten ari gara. Alde batetik, batzuk konturatu dira jokabideak aldatu beharrean gaudela iragarritako apokalipsi horretara ez ailegatzeko, eta ahalegin handiak egiten ari

dira elkarrekin konpontzeko, batzuetan beren eskubideetan amore emanez ere. Horiek, beraz, ohartu dira denok goazela itsasontzi berean eta ondoratzea nahi ez badugu elkarlanean aritzea ezinbestekoa dela. Ahalegin horiek pozgarriak izateaz gain, nire ustetan, bultzatu beharrekoak dira. Beste batzuk, berriz, mota guztietako integrismoak, fundamentalismoak eta mesianismoak sustatu besterik ez dute egiten. Aurrera egin beharrean atzera egiten dute. Horrelako taldeak gero eta ugariagoak dira eta beren jokabidea konfrontazioan oinarritzen da. Ez dakite zer den elkarriketa eta bakoitza egi osoa duelakoan dago. Dogmatismo horiek sarraskiak eta holokaustoak besterik ez digute ekartzen. Hori guztiaren isla izan dugu Indiako izurriteak, Japoniako lur-ikarak, Suitzako gertakizunak, Israelgo eta Irlandako gorabeherak, erligio-integrismoak, fundamentalismo politikoak etab. Bizi garen sistemak idealik gabe utzi digu eta balioen nihilismora eramán gaitu. Horiek horrela, gaur egungo gizon-emakumeok hutsik sentitzen gara eta giro horretan erraza da balioen ordezkioak sortzea era guztietako idolatria faltsuetan eroriz. Nihilismoaren arabera aurrekoa ez da esistitzen eta, beraz, aurreko guztiarekin apurtzen da. Horrela egozentrismo amorratuenean murgiltzen gara ez baitugu gure sustraiak eta gure jatorria onartzen. Dinamika horrek liderrak sortzen ditu, eta lider horiek karisma eta mesianismoan dute oinarri. Hortik aurrera badakigu zer datorren...

Euskara ba(n)tua



EZ HARRITU.

Berlineko horma erori ondoren Gasteizera ekarri omen dute. Hiria bitan banaturik geratu da, antza. Horra hor bestela txartela. Argazkian agertzen den alderdian hiri erdia besterik ez da geratu.

Beste erdia non ote?

kanGEUroak

Umeak zaintzen ditugu:

GOIZEZ

Beatriz
22 61 18

ARRATSALDEZ

Oihana
25 30 35

GAUEZ

Esther
27 84 57

ASTEBURU-ETAN

Olatz
25 61 20

Zeu ere haurrak zaintzeko baldinb azaude deitu 26 25 92 telefonora edo idatzi 1691 postakutxara




GUREA

jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefona: 24 59 33


J A T E T X E A



Kutxillera, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ

2CV-aren Gasteizko lagunak:

"Bi zaldien" irrintziari eusteko grina



Berrogeita bat urteko bide luzearen ondoren, duela lau uda ekoitzi zen azken "bi zaldiak" ("dos caballos" gazteleraz) izenez ezaguna den kotxea. Hain zuzen, 1990eko uztailaren 31an Mangualdeko (Portugal) Citroen lantegitik atera zen azken alea: orduko prezioa 762.836 pz.-koa. Errepideetan zehar trostan ibili diren zazpi bat miloi 2 CV-k hezurmamitu dute automobilismoaren mito handienetariko hau. Haren xarmak liluraturik, 300 bat elkarte eratu da Europan "bi zaldien" irrintziari eutsi eta bizi-arnasa eman nahirik. Gasteizen bertan iaz sortu zen horietako bat eta aurten dexente koskortua antzeman dugu: 2 CV-aren Gasteizko lagunak.

GARNICA 

Gorbea kalea 40
Tfnoa: 24 18 73

FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK



ASPALDI zerabilen bor-bor "ahuntzenganako" lilura Jose Kortazarrek. Iazko irailean, Portugaleko Algarben antolatu zen 2 CV-en konzentrazio batera joateko aukera egokitu zitzaion. Ez zekien, ordea, 2 CV-en lagunak elkar-terik zegoenik ez eta lantzean behin beren partaideak biltzen zirenik elkarren arteko harremanak estutzeko, beraien kotxea mintzagai nagusi izanik. Hangoak miretsirik nonbait, hemen ere horrelako zerbitu egin zitekeela ziharduen buruan honuntzkoan.

Gasteizera etorrita, Jose Antonio De Miguel "bi zaldien" jarraitzaile amorratu-arekin harremanetan jarri eta berehala adostu ziren hemen ere klub bat sortzeko aurreneko urratsak emanteko garaia iritsia zela. Hurrengo eginkizuna: ahalik eta "ahuntzik" gehien biltzea taldea



“abentura nahia eta lagunarte atsegina nagusi dira gure taldean”

partaideez hornitzen joateko. Horrela, egun batean, Mendizorrotzako parkinean, hamar ahuntz elkartu ziren Jose Antonio De Miguel eta Jose Kortazarrek egindako deialdiari erantzunez. Horrela, egunez egun, osatu da lokarri sendo bat kotxe selebre horren hainbat jaberaren artean.

Klubaren ibilia


Taldearen sorreratik, irtenaldiak egin dituzte gasteiztarrek, hala nola, Zamora, Leire monastegia, Txekiar Errepublika, Holanda eta abarrera. Horrelakoetan Gasteizkoek gain, han-hemengo klub partaide zenbait ere bildu ohi dira eta ez soilik mekanika-kontuek mintzatzeko, beren kotxeekin bizi izandako edota besteri entzundako abenturak zein desbenturak elkarri kontatzeko ere. Bilerotan honako hauek ekartzen dituzte hizpidera sarritan: "Bi zaldien" karabanan Sahara basamortua, India, Europa osoa eta abarrera egindako berebiziko

bidaia. Hori ez ezik, munduari itzuli osoa eman zion lehen kotxea 2 CV izan omen zen; orobat, Polara iristen aurrenekoa. Hamaika horrelako entzun daiteke txangoaldiotan, alperrikako hitzak ez, ordea. "Gisa horretako abenturak guk ere bizi nahi genituzke", azaldu digute Koldo Basterra, Jose Kortazar eta Jose Luis Morales "2 CV-aren Gasteizko lagunak" izeneko taldekideek. Beraien kotxeak ehundaka lagun egiteko bidea ere eman die. "Gurean abentura nahia eta lagunarte atsegina nagusi dira", agertu digute poztasunez "bi zaldien" jarraitzaile hauek. Aurrera begira, geurtz Eslobenian ospatuko den munduko konzentrazioa joatea da beraien hurrengo helburua.

2 CV bihotzekoa

Beraien kotxeaz mintzatzerakoan ezin dute gure solasaldikideek "bi zaldien-ganako" lilura izkutatu. "Oso atsegin dugu geure kotxea eta horregatik betiko eduki nahi genuke aldean".

Bizitza osoko maitemina sortzen ei da "ahuntzak" eta beren jabeen artean. Horren ondorioz, "2 CV-rik izan duten asko eta asko damutu zaio kotxea saldu izana eta honela esan digute: "Nik ere



**IRUNA
TABERNA**
HAMARRETAKOAK

KUTXI, 63 • Tfnoa: 26 58 52
GASTEIZ

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK

zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

**TXUSTA
TABERNA**

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**

Mateo Moraza kalea
GASTEIZ

eduki dut "ahuntzik" baina behin aita izanez gero, badakizu, kotxea txikia iruditurik, beste handiago bat erostea besterik ez da izaten".


Taldearen helburuak eta premiak

Estatu nahiz nazioarte mailako elkartrukaketak (batetik, kotxeari dagozkion kontu mekanikoak eta bestetik, bere kulturari loturikoak) bultzatzea du helburu elkarte honek, bere eldunen arabera. "Ideiak, bizipenak, sentipenak eta materialak eman eta hartu egiten dizkiogu elkarri". Taldearen sorreratik ari dira lokal baten gasteizarrak "kotxeak konpondu, geu bildu edota kanpoko jendea hartu ahal izateko". Diruz urri dabilta baina "alokairu merketxo bati aurre egin diezaiogegu". Ez dute inolako sostengurik. Horrexegatik salatu dute instituzioen aldetiko laguntzarik eza.

“bizitza osorako maitemina sortzen da «ahuntzak» eta beren jabeen artean”

Klub honetako partaidea izatea ez da batere zaila "ahuntzen" saldo hau ez baita itxia. Gamarra herriko plazan elkartu ohi dira hilabeteko lehenengo larunbatean, arratsaldeko lau t'erdietan. "Inork lagun berririk egin nahi badu eta, aldi berean, gurekin ondo pasatu, ongi etorria izango da gure klubean", jakinarazi digute "ahuntzen" taldekiek. Kotxearen egoerak ez omen du a-

jola handirik: "Bere kabuz ibiltzeko gauza bada, aski." Alabaina, 2 CV pittin bat hondatuta egonez gero ere, taldekide guztien artean moldatuko lirakeke matxura guztiak konpontzeko, antza. Areago, "ahuntzik" oraindik ez izateak ez du taldean parte hartzea eragoztiko, "lehenago edo beranduago, nola edo hala, 2 CVren bat eskuratzen saiatuko baikara denon artean", esan digute adiskidetsu gure solaskideok.




Club des Amis
2CV en GRECE

ΕΛΛΗΝΙΚΗ ΛΕΣΧΗ ΦΙΛΩΝ 2CV

"2 CV Gasteizko lagunak" taldearekin harremanetan jarri nahi izanez gero, hona hemen bi bide:

"La Calle" tabernara
(Dultzaina kalea) joan
eta Koldoz galdetu.
Honako telefono
hauetako batera jo:
14 82 36 (Koldo)
28 79 40 (Jose)



gurekin ondo pasatu, ongi etorria izango da gure klubean", jakinarazi digute "ahuntzen" taldekiek. Kotxearen egoerak ez omen du a-

Iñaxio
Lopez de
Arana



UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetzientzat

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 63 12
GASTEIZ

ARTE GALERIA
LOURDES UGARABE
Los Arquillos kalea,7
Tfnoa:(945)146261 • Fax:(945)143509
01001 GASTEIZ

Azaroaren 18tik Abenduaren 14ra arte
SANTOS INURRIETA



HegoAmerikako
jantzirik ederrenak

PINTORERIA kalea • S. Franciscoaren
kantoiaren ertzean Tfnoa: 25 03 52

Endrike Knörr:

«Euskal Herria, munduaren probintzia»

Atal honetan agertzen diren pertsonaia guztiak bi gauza dute amankomun: gasteiztarak dira -jaiotzez, afizioz edo ofizioz- eta euskaldunak. Hurrengoa zeu izan zaitezke!



KIROLZALE ZAITUGU. GASTEIZKO MARATOI ERDIAN ERE ATERA IZAN ZARA. ZEIN DUZU MARKA?

Oso txarra. Ez dut kontatu, baina pentsatzen dut: ia-ia hiru ordu; eta oso marka txarra da. Esan behar da, nire buruaren alde, ez dudala entrenatzeko denborarik izaten. Hori ere esan bedi.

DUZUN BIZIARIK HANDIENA?
Irakurtzea.

ETA BERTUTEA?
Gizartekoitasuna, pentsatzen dut.

FAMATU ADISKIDE BATEN IZENA EMAN BEHAR BAZENU?
Koldo Mitxelena.

ZER ESKATZEN DU HERRIAK?
Herriak eskatzen du askatasuna eta

zibilizazioa, edo gizarte zibilizatua.

ZER ESKATZEN DIOZU ZUK ZEUK BIZITZARI?
Lan egiteko denbora.

ETA ESKAINI?
Lana.

GASTEIZ, VITORIA, GASTEIZ-VITORIA ALA VITORIA-GASTEIZ?
Segur aski gauzak oker egin ziren bere garaian, eta denborak erakutsi du. Nik -esate baterako-, erdaraz, Vitoria esango nuke agian; eta euskaraz, Gasteiz. Norbaitek erdaraz ere esan nahi badu Gasteiz, bada Gasteiz...

JENIORIK BAI AL DUZU?
Zoritxarrez bai. Zergatik zoritxarrez? Gero damutu egiten naizelako, horrelako prontoak izaki.

ZEIN DUZU MOMENTUKO KEZKARIK HANDIENA?
Jendearen ezjakintasuna, erabat eta Euskal Herriko historiaz.

GEU ELKARTEAREN BERRIRIK BAI?
Bai. Izugarri ongi irizten diot.

EGUNKARIEN BAT?
Zaila da erantzutea. Baina "Euskaldunon Egunkaria" bera esperantza handia da.

TELEBISTA PROGRAMARIK?

Ardatz itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

★
IZ
TABERNA
R
A
JATETXEA

BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73

Euskaldunon egunkaria esperantza handia da

Ez dut ikusten, salbu "Teleberriak" eta pelikularen bat edo hola.

OPORRAK NON ETA ZERTARAKO?

Normalean, Katalunian parte bat; erdi-katalana naizela eta gustatzen zait: familia eta, giroa eta. Urrutiko bazterrak ikustea ere gustatzen zait.

ETXEKO LANAK NOREN KONTURA?

Zenbait, nik.

NONGO EUSKARA DA ZUREA?

Ez dakit. Pentsatzen dut erdialdekoa; beraz, orotako euskara dei genezakeen hori.

ZERK ATERATZEN ZAITU ZURE ONETIK?

Ezjakintasun aktiboak.

JAKI GOXOREN BAT.

Barbarinak.

FILMEREN BAT?

"El ocase de los Dioses", "Sunset Boulevard" ingelesez.

AKTORE IZENIK?

Tom Hanks ikaragarri gustatzen zait. Azkena ikusi dudana, Ginebran gainera - Genevan-, "Philadelphia". Bide batez esanda, ingelesez mintzatua; eta azpitoluak... frantsesez eta alemanez! Gora Nazioartekotasuna!

TXIKITAKO OROITZAPEN EDERRIK?

Aitarekin karramarro bila ibiltzen ginenekoa, Araba inguruan.

GORPUTZ ATALIK POLITENA?

Aurpegia.

AMETSIK BAI, ILUSIO HANDIREN BAT?

Israel ikusi nahi nuke.



Bere bizitzaz zertxobait

Barandiaranen etxean ere egon zen morroi edo. Gero, Diman eta beste hainbat lekutan. <Urrikgarriak zaizkit orain -eta hori aitortzen dut-, garai hartako nire adiskideak; zer soportatu behar zuten! Orain euskara txarra baldin badut, pentsa nolako euskara txarra eta narratsa nuen orduan. Pazientzia handia erakutsi zuten>.

Egun, Euskaltzaindiko idazkari da, Onomastika buru eta Jagon sailburu. Pozik da irakasle bikainak ezagutzeko aukera izan duelako: Odon Apraiz, Barandiaran, Mitxelena, Caro Baroja...

Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle da Gasteizko fakultatean. Euskal Filologia saileko departamenduburu. Damu da: berak nahi beste denbora ezin eman ikasleekin!

Txagorritxun bizi dira. Eharira ezkondu zen, andrearen herrira. Etxea bota zuten, orde, eta Gasteizen bizi dira harrezkero. <Badugu halako tratu bat emazteak eta biok, eta abuztu-irailak Lasarteko etxean pasatzen ditugu>

Bi seme eta alaba dituzte. <Enekok ditu 19 urte, Garikoitzek 17; neskatilak, Irurik, 15>.

1.947an jaio zen, Tarragonan.

Gasteiztarra aita, Kataluniakoa du ama. <Egoera hura normala izan balitz, ni Enric izango nitzatekeen>. Hainbat erataria ikusi diogu izena idatzita. Akademiaren erabakiaren zain dago bera. <Euskaltzaindiak izendegi ofiziala aterako du: Enrike, edo Endrike, zein Henrike edo

Nahiko bihurri zen gaztetan.

Apaizgaitegitik ere bota zuten.

Maristetan ikasten ari zela jakin zuen euskararen gainean lehenbizikoz. <Sekulako zartada izan zen; zirrara izugarria>. 17 bat urte izango zituen: joan ziren Zarautza txangoan, eta mezetara. <Kanta paper bat edo beste banatu zuten; tutik ere ez nuen ulertzen!>.

1.969a arte ez zen -serio eta beltz-, euskaraz ikasten hasi. Joxe Miel

GIZARTE ARLOAN, ZER ALDATUKO ZENUKE?

Inkomunikazioa.

MUNDUAN DEN DENBORA GUZTIA IZANEZ GERO, ZER EDO NORA; EDO ZERTARAKO?

Idazteko.

LIBURU GOMENDAGARRIREN BAT? IDAZLEREN BAT?

Thomas Mannen "La montaña mágica"; "Mendi sorgindua" edo, nobela ikaragarri

ederra.

ZEIN DA ZURE BARRUKO MOTORRA?

ZER DUZU EGUNEROKO ERAGINGARRI?

Munduaren probintzia den Euskal Herriaren alde zerbait egitea. Probintzia: horrekin esan nahi dut, alegia, lan egiten dudala hemen, baina horrekin ere munduari zerbait eskaintzen eta opatzen diodala

Miel Anjel Elustondo

Ederki

argazki estudioa

ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN

Erreportaiak: ezteiak, komunikioak, bataioak

Estudioko argazkiak

Bideo industrialak

Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85



Jazkarprint
Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51

ZURE INPRIMATEGIA EUSKARAZ

Kolorezko Fotokopiak ere egiten ditugu

GASTEIZ

INPRIMATEGIA

Pilar auzoa: bidaia bat Amer

PANAMA, Cuba, Paraguay, Puerto Rico, Honduras, Peru eta Latinoamerikako herrialdeen izena duten beste kale batzuk osatzen dute Pilareko Auzoa. Populazioari dagokionez, biztanle gehien duen hirugarren auzoa dugu hau Gasteizen. Jaiak pasa berriak direnez, interesgarria eritzi diegu auzo honi buruz zerbait gehiago jakiteari, eta horretarako "Gure Auzune" Auzo Elkartekoa den Sigifredo Bautistarengana hurbildu gara auzoari buruzko hainbat galderarekin.

ZEINTZUK DIRA GAUR EGUN AUZOAN DAUDEN ARAZORIK INPORTANTEENAK?

Nire ustez, polikiroldegi bat egotea beharrezkoa litzateke, kirola egiteko instalakuntza egokirik ez dagoelako.

Baina, "Gure Auzune"elkarteko kide naizen aldetik, drogen arazoa da gehien arduratzen nauena. Ez dut esan nahi droga erruz dagoenik, baina hona ailegatu ez daitezen saiatu behar gara.

Gazteen artean dagoen langabezi tasa haundia ere arduratzen da.

NOIZ SORTU ZEN "GURE AUZUNE"

ELKARTEA, ZE HELBURUREKIN?

1978. urte inguruan sortu zen. Urte horretan auzoan bikote gazteak ginen gehien bat, eta asko kanpotik etorriak. Beraz, hainbat beharrari (ekonomikoak, hezkuntzakoak, bizikideta-

sunekoak... eta abarrei) aurre egiteko jaio zen.

Gure helbururik behinena auzoan dauden arazoak bere gain hartzea eta hoiei buruz informatzea eta konponbide bat ematen saiatzea da.

BIZTANLEAK:

14.000 inguru. Gehienak 45 urtetik gorakoak

LANBIDEAK:

Gehienek industrian iharduten dute, alegia, okupatuena %62,33

MUGARTEAK:

Iparraldean zirkunbalazio errepeida. Hegoaldean Simon de Anda eta Basoa. Mendebaldean Gasteiz etorbidea. Ekialdean Santa Isabel hilerria.

JAIK:

Urriaren 12an, El Pilar egunean.

BESTELAKO ELKARTEAK:

Andaluziako Kulturetxea "Seneca" Asturiasko etxea "Covadonga" Karitas Jubilatuen etxea "El Pilar" Probintzia mailan: Arabako diabetikoen elkarte (A.D.A.) Arabako elbarritu fisikoen elkarte (A.M.F.A.) "Arazoak" elkarte.

HISTORIA:

1965. urtean auzoa eraikitzen hasten zen, orduan zonalde horretan 700 pertsona baino ez ziren bizi. Hasierako eremuak nekazal lurak ziren, eta gehienetan lurjabe pribatuen eskuetan zeuden. Auzoa azkar hazi zen, estatutik bikote gazte ugari etorri baitziren. 1975. urtean bizilagunen %36,5 soilik zen arabarra jaiotzez. 1981. urtean auzoak 14.139 bizilagun zituen, gaur baino zerbait gehiago.



zenbait datu

restaurante • jantoki

DOS HERMITAS

1887an sortua • Jose Ramon Agiriano

madre vedruna, 10

☎ 13 29 34
13 44 46

01008 gasteiz

kalitaterik onena !

iketara

Horretaz aparte, bestelako ekintza batzuk ere antolatzen ditugu. Aurten, esaterako, sukaldaritza, jostura, zankoak eta beste ikastaro batzuk egin izan dira.

Bestalde, bi eskubalo talde daude, eta orain arte futbol ekipo bat genuen.

Auzoko jaiak, Olentzero Eguna eta Inauteriak antolatzeko ardura ere hartu du bere gain auzo elkarteak.

ZEIN DA AUZOAN EUSKARAK DUEN GARRANTZIA?

Egia esan, ia ez da euskaraz hitzegiten. Dena dela, eta istilu batzuk egon badira ere, aipatzekoa da orain Luis Elejalde ikastetxean B eredua jartzea lortu dutela. Baina euskararen presentzia ez da oso nabarmena auzoan.

AUZOKO EZAUGARRI INPORTANTEENAK.

Kaleak nahiko zabalak direla eta berdeguneak nabarmenduko nituzke. Bestalde, hemengo jaiak ere oso ezagunak dira.

Asier Perez de Karkamo



Eric Burdon:

30 urte eta gero

ERIC BURDON, Newcastle-n jaitako 53 urteko meatzaria, egona zen aurretik ere Euskal Herrian, ez ordea Gasteizen. Urriaren 2an «Elefante Blanco» diskotekaren ateak zabaldu ziren 60. hamarkadako mitoa izan zenari leku bat egiteko.

Horrelako kontzertu batera joaten naizen bakoitzean, galdera bat darabilt buruan bueltaka: aintzinako izarra bere ditzira galdu ote? Zer aurkituko dut: abeslari zahartua eskenatokia zutik mantendu ezinik? Izen bat besterik ez?

Eric Burdoren bizitzari begirada txiki bat eginez gero, zalan-tzak sor daitezke. Zaharra da, jakina. Baina kontuz! Kontzertuan bildu ginen lagunon artean oso gutxi izango ziren Eric Burdon gaztea ezagutu zutenak. Bakar bat ere ez, agian.

Egia da, gaurko Eric Burdon abeslaria ez da duela 25 urte zena. Ez pentsa, ordea, bere ospeari azken etekinak atera nahi zion abeslari zaharkitua denik. Bai eta zera ere! Bere diskak ez dira dagoeneko salmenta zerrendetako lehen postuetan agertzen. Ez du apenas diskarik eginen. Kontzertuetan entzun ahal ditugun abestiak ez datoz bat hamarkada honetako doinuekin. Betiko kanta entzun genituen, klasikoak. The Animals taldearekin batera klasiko bihurtu zituen kanta, alegia.

Bere agerraldietan ez dago gauza berri askorik: bateria, baxua, kitarrak eta abotsa. Hori bai, abots eder askoa. Duela 30 urte hainbeste gazte hunkitu zuen abotsak beste hainbeste egin dezake oraindik ere.



Gaua polita izan zen. Leienda bat eskenatokia eta bostehun nostalgiko bere inguruan. Entzun nahi genituen abestiak bere estarratik atera ziren poliki poliki: "Don't let me be misunderstood", "We gotta get out of this place", "Monterrey", "Tobacco Road", "When I was young", edota benetako sorpresa bat? The Doors taldearen "Roadhouse Blues".

Rhythm and Blues eta Rock and Roll-aren uretan murgildu ginen. Kanta luzatu ziren. Musikariak ezin trebeagoak. Azkenean "House of the Rising Sun" entzun ahal izan genituen. Deskribaezina. Galdera bakar bat bukatzeko: Nolakoak ote ziren duela 20 urteko kontzertuak?

Joxe Mari -Txabi Arnal Gil



GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA
S. Fco Xabier Kantoia
Tfnoa: 28 33 05
Poteo eta giro ona

ERDIALDEA
Ramiro Maeztu 6
23 31 92
Eguneko menua

Miserableak: orkestra g

UDAZKENERO bezala, antzerkia iritsi zaigu berriro ere Gasteiza. Oraingo honetan, azaroaren 19an, Victor Hugoren "Miserableak" opera ikusteko aukera izango dugu Bergarako Orkestra Sinfonikoaren eskutik eta GEU elkartearen babespean. Alfredo Gonzalez Chirlaquek egin zuen klasiko honen egokitzapen lana Bergarako Musika Eskolaren X. urteurrena ospatzeko. Hirurogeita hamar musikari gaztek antzeztuko dute lan ezagun hau Principal Antzokira hurbilduko diren guztien gozamenerako.



Bergarako Musika Eskolak bere sorreratik oso kolaboratzaile berezia izan du: Alfredo Gonzalez Chirlaque. Musikari honek ondotxo ezagutzen du Bergarako Eskolaren lan oparoa. Bere X. urteurrena ospatzeko zerbait berezia egitea pentsatu zuen eta baita lortu ere: Victor Hugoren "Miserableak".

Lehenengo eta behin, jatorrizko musikala laburtu behar izan zuen Alfredok hiru ordutako antzezlan batzen Victor Hugorena. "Gureak ordu eta erdi irauten du, jatorrizkoaren erdia".

Gizartea errotik aldatu behar dela aldarrikatzen dute bergarrek operaren bidez

Moldaketa egiteko, Valen Moyusen laguntza estimagarria izan du Musika Eskolako zuzendariak. Alfredok musika konponketak egin dituen bitartean,

1861tik hona

1861. URTEAN amaitu zuen Victor Hugok "Miserableak" eleberria. Oraindik klasikoa den lan hori bere garaiko gizartearen ispilu da, Frantziako iraultza eta ondorengo urteetan gertatu ziren aldaketak isladatzen direlarik bertan. Pertsonaiak marginatuak dira, gizarteak baztertzen dituen pobre eta errebeldeak.

Victor Hugok lana argitara eman eta urte batzuetara Alain Boubil eta Claude-Michel Shonberg-ek eleberria egokitu zuten opera sortzeko. Halere, Cameron Macintosh britaniarraren



zuzendaritzapean sortu zen egun hain ezaguna den lan hau. Beraz, lan berria egin zuen: rock opera bat. 1986. urtean Broadway-ra eraman zuten antzezlan eta oraindik ere karteleran dirau. Hamairu hizkuntzatan antzeztu izan da "Miserableak" lana. Azaroaren 19an euskaraz ikusi ahal izango dugu. Ez alperrikaldu aukera paregabe hau!

EDAN • JANTEGIA



ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

*Karta betiko eta
oraingo platerekin
Eguneroko Menua: 1000 pzt
Betiko kazuelatxoak*

GEU GASTEIZ

**GASTEIZTARRA
eta
EUSKALDUNA**

azte baten ametsa egia bihurturik

Valenek hartu du bere gain antzezpenaren ardura. Bi arlo horiek atondu eta gero gai garrantzitsu bat geratzen zen airean: itzulpena.

Euskara hutsez egiten du "Miserableak" antzezpena Bergarako Orkestra Sinfonikoak. Miguel Muñoz, Pello Txintxurreta eta Rafa Sanchez eskertu ahal izango dugu euskaraz Victor Hugoren lan hau, eurek egin baitute euskarazko itzulpena. Hamahiru hizkuntzatan taularatu da dagoeneko obra klasiko hau.

Arlo guztiak ondo taiatu ondoren hasi ziren lanean zuzendariak eta musikariak. Entsaioak ez dira aspergarriak izan 22 urte baino gutxiago dituzten 70 musikarientzat. Horrela da, Bergarako Orkestra Sinfonikoa 70 musikarik osatzen dute eta bere batz besteko adina 20 urtekoa da.

Orkestra gazte eta oparoa

"Pena da Gasteizen antzezle guztiek antzezpenean parte hartu ezina", azaldu

Bergarako Musika eskolaren X. urteurrena ospatzeko taularatu dute oraingo lan hau

du Alfredok. Principal Antzokiaren eskenatokiaren neurriak harritu du Bergarako musikagilea: "Ez gara denok

sartzen. Eta oso arraroa da handiagoa ez egitea hain leku berria izanik. Lehenago arazorik sortu duela jakin dut". Eskenatokiaren neurria dela eta ez dela, berrogei lagun baino ezin izango ditugu Gasteizen ikusi, "eta denak ez dira eskenatokian egongo, batzuk harmailetatik kantatu beharko dute".

Oskestraren gaztetasuna begi bistakoa da bere zuzendariaren iritziz: "Emanaldietan abesti klasikoak kantatzen ditugu baina bukaerarako zerbait modernoagoa aukeratu ohi dugu, Orkestraren nortasunarekin bat datorren zerbait". Gonzalez Chirlaquek adierazi digunez, Queen taldearen kantak eta filmeen doinuak erabiltzen dituzte normalean. "Horrela, gurea ez da izaten orkestra baten ohizko emanaldia", azaldu digu harro.

"Miserableak", berez, rock opera da, "baina orkestrarako egokitzeko orduan, antzezlanari ikutu sinfonikoa egotzi behar izan diogu nahiz eta guk erabili musika tresna elektrikoak, hala nola, kitarra, teklatura..."

"Miserableak" XIX. mende-ko gizartea isladatuagatik, "oso ondo ulertzen da gaur egun ere". Izan ere, gizarteak baztertutako gizakiak dira lan honetako protagonistak. "Justizia eskatu eta gauzak aldatzeko borroka egiten dute

gogotik marginatuok. Guk, gure aldetik, aldarrikatzen dugu oraindik ere gure gizartean gauza asko dagoela aldatzeko".

Irrika eta beldurra

Opera berezi hau Gasteizko Antzerki Jaialdian antzezteko irrikitan dago Bergarako talde gaztea. "Antzerkialdia" oso interesgarria, oso garrantzitsua. Guretzat aurrepauzu handia izan daiteke Gasteizko Jaialdian egotea". Beldur bakarra dute: "Gu ez gara profesionalak eta, beharbada, gainerakoekin alderatuz gero, elkarren arteko alde oso nabaria izango da". Halere, oztupo guztiak lanez eta kemenez gainditzen omen dira. "Gogo handia duen talde gazte bat gara", esan digute agur moduan. Zorte on!

Leire Lopez de Aberasturi

Alfredo Gonzalez Chirlaque

Miserableak



BERGARAKO

MUSIKA Eskolak hamar urte bete ditu aurtun. Orkestra Sinfonikoa, berriz, hiru urte beranduago sortu zen. Hasieratik zuzenda-ri berbera izan du: Alfredo Gonzalez Chirlaque, Gipuzkoako musikarien familiarik

famatuenetarikoa baten semerik gazteena.

Alfredo Bergaran jaio zen 1956. urtean. Aurreneko musika eskolak Miguel Gonzalez Bastida bere aitaren eskutik hartu zituen. Ondoren Donostiako Musika Kontserbatorio Nagusira sartu zen.

Ikasketak amaitzean, 1979. urtean "Aritzeta" abesbatza sortu zuen. 1986an bere aita ordezkatu zuen Bergarako Udala Musika Bandaren zuzendaritzan. Bergarako Musika Eskolako zuzendaria ere izan da 1983tik 1989ra bitartean.

Udal Musika Bandaren zuzendaritza lana ezezik kantak eta doinuak osatu eta



PRO-ISMO 0

ilusioz elikaturiko kultur elkarte



Badira bederatzi bat urte "Pro-Ismo 0" antzerki taldea sortu zenetik. Gaur egun zazpi gaztek osatzen dute antzerki talde hau. Urriaren amaieran Gasteizen beren azken antzezlan taularatu zuten, "Amares revueltos" izenburukoa, hain zuzen. Itsasoko amodio istorio baten inguruan dihardu muntaiaren edukiak. Antzerki talde gasteiztar hau nolakoa den, zeintzu asmo dituen eta nola dabilen ikusteko jakinmina asetzeko beraien entseilu-lekura joan ginen beraien azken antzezlan plazaratu aurretik eta hara non harrapatu genituen horretarako prestakuntza lanetan.

TALDE HAU 1985eko otsailean hasi zen martxan. Ordutik geroztik, zortzi lan antzeztu dituzte gaurdaino, hauek: "Queremos el tesoro", "Dos rivales en el reino dorado", "Prohibido pescar peines", "Ale-goria de San Juan", "Zuia agur", "Tse-tse mania", "Genesis", "El Juglar" eta "Amares revueltos". Ez da lan makala orain arte egindakoa.

Orainsu prestatu duten muntaia, "Amares revueltos" izena duena alegia, euskaraz da, baina bere benetako izenburua ez dute oraindik aukeratu. Urriaren amaierarako bukatu behar izan zituzten antezlan horren gertakuntza lanak horrela baitzuten hitz emanda aurretiaz. .

arcaya

Portal de Villarreal, 22-24
Tfnoa: 26 06 58
Portal del Rey, 21
Tlfnoa: 28 08 69

SOINUA
IRUDIA
ARGIZTAPENA
ELEKTRAGAILUAK
OPARIGAIK

ANBOTO

TABERNA - JATETXEA
EGUNEKO MENUA

Kutxilleria, 29 - Tfnoa. 25 00-93 -
01001 GASTEIZ

Denetarik antzezkizun

Helduentzat egin dituzte hainbat antzeppen; beste batzuk, berriz, umeentzat.

Hizkuntzaren alorrean euskara eta erdara dituzte lan tresna.

Antzerki esperimentalaren ere landu dute, "Alegoria de San Juan" adibiderik adierazgarriena izanik, antzerki klasiko-erikiko ezein lotura zapuzteko asmoz osatua berau.

Orobat, Pro-Ismo 0 taldekoak ezkontzak eta festak animatzen ausartzen dira antzerki giro ezberdinei egokitzeko duten nortasun aniztasun hori agerian utziz.

Antzerkiaren muina

Beraientzat antzerkia zer den galdetik, "uff, jo, buf" eta horrelakoak baino ez zaie ahoratu. Geroxeago, hainbat definizio eman dizkigute. Izan ere, antzerkia honela ikusten dute: "Hobby serioa, artea, lagunartean egoteko aukera, adierazbidea, komunikatzeko era, denborapasa polita, dirua eskuratzeko modua (baina oso kaxkarra)...".

Duela bederatzi urte osatu zen taldea. Zein izen hartu ere ez zekiten garai hartan. "Hamaika izen eta tontakeria bota genuen egun dugun izena aukeratu aurretik".

Zazpiak bat

Adolfo Canillas, Susana Castrillo, Ana Rosa Ortiz, Angel Ramirez, Belen Vicente, Fernando Martinez (argiztapen teknikaria) eta Yayo Vicente (soinu teknikaria) ditugu taldeko partaideak. Zazpi dira; une honetan ez dute zuzendaririk gidaritzat lana denen eskuetan dagoelarik. Guztien artean

“Artea, hobby serioa eta lagunartean egoteko aukera da guretzat antzerkia”

erabaki eta egiten da dena: argumentoak idatzi, jantziak erosi, txontxongiloak eta dekoratuak sortu... Beraien argumentoak oso iturri ezberdinetatik datozkie: euskal mitologia, erretratuak, ipuinak, olerkiak...

Etorkizunera begira

Pro-Ismo 0 taldeari etorkizun luzea eta oparoa antzeman diezaiokie edozeinek, gazte hauek alaitasun eta egitasmo handiak baitdarabilzkite esku tartean. Astean laupabost egunetan biltzen dira Judimendin duten lokalera irudimenez beteriko mundu zoragarriak guretzat mamitzeko. Hortaz, badakizue, talde honen antzezlanik ikusteko aukerarik izanez gero, ez ezazue hutsik egin, primeran pasako duzue eta!

Lorea Zubimendi



“Pro-Ismo 0 taldearen etorkizuna luzea eta oparoa da alaitasun eta egitasmo handiak baitituzte eskutarteab”

**DEIADAR
GASTEIZ
FANFARREA**

Telefona: 23 17 13

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



Ba al dakizu?

1- Ba al dakizu zenbat denbora behar den Bilbotik Nueva Delhira joateko hegazkinez?

- a- lau ordu
- b- hamar ordu
- d- hambost ordu

2- Ba al dakizu nork idatzi zuen Aladino ?

- a-ezezaguna da
- b-Lewis Carroll
- d-Mark Twain

3- Ba al dakizu zer zen Axular?

- a-liburusaltzailea
- b-idazlea
- d-gerrilaria

4- Ba al dakizu non hil zen Jaun Sebastian Elcano?

- a-Getarian
- b-Presondegi batean
- d-Itsasuntzi batean.

5- Ba al dakizu nor izan zen Caruso?

- a-lkerlari bat
- b-Musikalari bat
- d-Abeslari bat.

6- Ba al dakizu nork asmatu zituen sandwichak?

- a-Londresko tabernari batek
- b-karta jokalaria batek
- d-mendizale batek

7- Ba al dakizu nongoa den turroia?

- a-lruñeakoa
- b-Bartzelonakoa
- d-Suizakoa

8- Ba al dakizu zenbat lapur hil zituen Ali Babak?

- a-39
- b-40
- d-bat ere ez

(Erantzunak: 1-b, 2-a, 3-b, 4-d, 5-d, 6-b, 7-b, 8-d)

pertsonaia misteriotsuaren bila



- 1.- Txikia da baina 1,80 inguru neurtzen du.
- 2.- Aita Sanduaren bi izenetako bat du.
- 3.- Gasteiztarra beti.
- 4.- Eskuak, hankak... eta burua erabiltzen ditu.
- 5.- Bere lanbidea askorentzat jolasa da.
- 6.- Astero astero milaka lagun daude berari begira.
- 7.- Jolakari ezaguna da.
- 8.- Baskoniako zaharrenetakoa.

(Erantzuna: Pabito Laso)

deportivos



kirolgaiak

Zure kirol- oinetakoak

Gorbea 34 tfnoa: 24 75 04
Gorbea 27 tfnoa: 24 22 05
Ariznabarra 17 tfnoa: 14 71 33

Fax: 22 07 19



ARTEPAN

Artisau
Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

ean



Eta... matematikak?

Gehiketa, kenketa edo biderketa eginez, ondorio hau atera behar duzu.

$$2 + 4 \times 5 - 9 = 21$$

$$5 - 3 + 8 \times 2 = 20$$

$$8 - 5 \times 5 + 4 = 19$$

$$8 - 5 \times 5 + 4 = 19$$

$$5 - 3 + 8 \times 2 = 20$$

$$2 + 4 \times 5 - 9 = 21$$

erantzunak:

Geografia

Zure ikaskide bati apunteak nahastu zaizkio, lagunduko diozu lekuak eta herrialdeak parekatzen?

1 Nepal

2 Alemania

3 Egipto

4 Mejiko

5 Italia

6 Errep. txeka

4 Chiapas

6 Praga

3 itsas gorria

1 Katmandu

2 Frankfurt

5 Enna

Erantzunak:
nepal-katmandu/alemania-frankfurt/egipto-itsas gorria/mejiko-chiapas/italia-cnna/errep. txeka-praga.

Asmakizunak

Orrazten du ilea erreka ertzean;
erdia emakumea,
oinetan hatea
ZER DA?

Azala laranja
kapela berdea
lurpean bizi da
untzien platera
ZER DA?

Lamia
azzenarioa

Nahas-mahas

«H» daramaten 8 hitz
aurkitu

A	N	E	B	I	R	O	M
B	E	R	E	H	A	L	A
U	U	T	R	A	H	O	H
T	A	E	R	U	I	M	A
I	B	A	E	O	S	T	I
G	O	X	H	A	N	K	A
I	S	E	U	D	E	F	O
H	L	U	N	I	H	A	R

Berehala, hanka, har, higitu,
hau, mahala, leho!

Abendaño ikastolako 3. eta 4.
mailakoak eginda

GORETTI
ILEAPAINDEGIA

San Antonio, 29-Behea
Tfno: 13 18 55
01005 - GASTEIZ

ditare

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ



Gainera:

Azaroaren 19an, larunbata
Gaztetxean

Urtz

taldearen kontzertua

EHEk bere 15. urtemuga dela
eta antolaturik

Azaroaren 25an, ostirala
Matxete enparantzan 8etan

Gaztainada

IKAk antolaturik

Aizue !



IGANDEETAN mendi
irtenaldiak egin nahi lituzketen
pertsona batzuk gara. ladanik
ari den mendi-talde batera jo
beharrean GEUren bidez
zerbait antolatu nahiago
genuke. Adibidez, jendea
bildu, ibilaldiak eta egutegia
programatu, eta mendian
trebatuak diren bi pertsoa edo,
gidatzat izendatu.

Interesatuok dei ezazue
26 25 92 telefonora GEU
elkarteko telefonora.

anima zaitoz!

Sukalde txokotik

UDAZKENA dugu mota guztietako perretxikoak bilatzeko
tenorea. Hona hemen bi platera. Lehenengoak barregarria
(txanpinoia) du osagai nagusi; bigarrenak esnegorria
(niskaloa).

Esnegorri zopa patatekin

Osagaiak (6 pertsonarentzat):

- Esnegorriak: 2
- Ogia: (pistola motakoa) barra erdi bat
- Baratxuria: ale bat
- Olio: edalontzi bete
- Txorizotarako piperra: 2
- Tipula txiki bat
- 2 patata
- Urdaiazpiko apur bat
- Gatza

Nola egin:

Esnegorriak hogeitaz minutuz egosten jarri. Horiek isuriko duten salda geroko gorde. Olio, baratxuriak, urdaiazpikoa eta piperrak paratu kazola batean. Aurrez xerratan ebaki ditugun esnegorriak aurrekoari gaineratu, eta hamar minutuz su bigunez berotu; txirrindeletan

Makailua barregarrieekin

Osagaiak:

- Makailua: kilo bat, lehorra eta xerretan ebakia
- Barregarriak: 200 gr
- Gurina: 50 gr
- Olio: 3 goilarakada
- Ardo txuria
- Perrexila
- Limoia: 1
- Tipula: 1
- Irina
- Gatza
- Piperrautsa
- Pinaziak: 20 gr.

Nola egin:

Hogeita lau ordutik uretan eduki eta gero, piperrautsa, perrexila eta limoiaz makailua zoritu; gero irineztatu eta nonbait gorde. Tipula zatikatu eta su bigunez berotu



ebakitako ogia erantsi. Horri guztiari esnegorrien salda ttantta batzuk bota. Hogeitaz minutuz egosten eduki. Tipula zati txiki-txikietan xehatu eta beste ontzi batean berotzen jarri su bigunetan. Txirrindeleta mehetan ebakirik patata gaineratu tipulari. Bukatzeko, mahaira eramango dugun ontziaren barruko beheko aldean patata pusketez estali, gero zopa bota eta horren gainean beste patata geruza bat ezarri. Labean sartu zortzi minutuz.



oliotan. Makailua iratxeki, aldizka iruntziratu eta ardo txuria gainetik bota. Aurrez atundu behar izan ditugun barregarriak horri guztiari gehitu baso txiki bat ur, gurina eta limoiarekin batera. Ondoren, perrexila, piperrautsa eta gatza erantsi. Hamar minutuz egosten eduki. Bukatzeko, buztinezko azpil batean mahairatu bertara pinaziak (aurrez beratuak) eta perrexil xehatua hautseztatu ostean.



Bacalao Giraldo

▪ Egunero makailu gesaldia ▪ Makailua eramateko prest

▪ 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN


"Kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema, - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran - Gasteiz



Sabino Padilla, txapeldunak egiteko giza makina

nork gutxi ezagutzen zuen duela lau urte Sabino Padilla. Eta zuk zer diozu? Zuk ere ez duzula oraindik ezagutzen? Eta Miguel Indurain, Perasovic eta Martin Fiz aipatuz gero, zer? Bai horixe! Banesto txirrindulari taldea, Gasteizko Baskonia eta Martin Fizen sendagile ospetsua duzue Sabino Padilla. Adituen iritziz, Gasteizetik hurbil bizi den otxandiotan honek txapeldunak sortzen ditu, galdeiozue, bestela, lau tour jarraian irabazi dituen atarrabiarrari.



IRUSTA
poteo eta pintxoak
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

zure euskal
LIBURUDENDA

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

2 *errikoia*



Sabinoren sekretua

Sabino Padillak izkutuan sekreturik baduela susmatzen dugu kirolzaleok. Halere, "sekretua lana da" adierazi du Sabinok. Kirolarien elikadura eta prestakuntza fisiko zein psikologikoaren ardura du sendagile bizkaitarrak. Guk horri buruz galdegin diogu baina alferrik, otxandiotarrak lana hitza baino ez baitu aipatu, "urrun helduko direla sinesten dute nire kirolariek. Horrez gainera, kirolari handiak dira. Kirolarien gogoia da oinarria. Martin Fiz edota Miguel Induraini eroapena eta lanean inbertitzeko eskatu die eta hor daude emaitzak. Zenbait kirolarik ez dute bost urtez itxaroteko pazientziarik, eta bide erdian gelditzen dira".

SABINO PADILLA ez da mediku arrunta. Sendagile hitza aipatzen dugunean, kontsultaren irudia datorkigu gogora baina Sabinok nahiago du laguna izan. Hori ikusi ahal izan genuen Miguel Indurainek Bordelen munduko marka hautsi zuenean. Denetarik egiten zuen Padillak, animoak eta gomendioak eman, denbora kontrolpean izan... Banestoko kirol zuzendaria zirudien. Kirol sendagileak kirolarekin duen harremana honela azaldu digu: "Beraiekin zenbat eta denbora gehiago egon, hobe. Hori dela eta, kirolari gutxi ditut nire ardurapean. Beraiekin une onak eta txarrak bizi behar izaten dituzu, bestela, arrakasta zaila da. Lagunen artekoa behar du harremanak, sakona eta iraunkorra".

Orain zazpi urte ez zuen inork Sabino Padilla ezagutzen. Orduan hasi zen Martin Fizekin lanean, eta beranduago etorri ziren Banesto eta Baskoniaren deiak. Hala ere, Padillak lan handia egin behar izan du hori guztia lortzeko. Hamalau urte zituenetik etxetik kanpo ibili da. Eskoriatzan, Valladoliden, Frantzia...

beti Euskal Herritik landa. Frantzia Zootemelk eta Mottetekin lan egin ondoren, Euskal Herriko Unibertsitatetik deitu zioten, baina onena iristeko zegoen.

Duela lau urte Jose Miguel Etxebarrik, Banesto taldeko zuzendariak, Sabinori eskatu zion talde nafarrean sartzeko. Padillak ez zuen hura sinesten, eta baietza esatea ez zen erreza izan. Alabaina, nafarren nagusiak lortu zuen nahi zuena, beti bezala. "Azkenik konbentzitu ninduen", esan digu Padillak. Ordudanik gure gaurko protagonista dugu familia nafarrean. Nafarrak langile ixilak omen dira. Etxebarrik eta beste guztiek ederki asko erakutsi dute hori. Sabinok baietsi digu, "haien lana eta ardura ezartzen dituzte, zure lanaren gainean kontrol handia dago. Batzutan gehiegi eskatzen dutela eman lezake baina hortxe dago arrakastaren gakoa".

“**Perasovic harrigarria da, beti lanean**”

**Cervecería
Alemana**

SALTIXITXAK
KAZOLATXOAK
SANDWICHAK

Gerardo Armesto, 3 • (Gasteiz etorbidearen ondoan) Tfnoa: 13 29 88 • GASTEIZ



**GASTEIZ
KIROLAK**

**UDAZKEN / NEGU
honetan**

**FORRO POLARRAK
PRAKAK
TXAMARRAK**

**KALITATE / PREZIO
ONENA**

**GENERAL ALAVA kalea, 1
GASTEIZ**

“**Une onak eta txarrak bizi behar izaten ditut kirolarekin**”

Argi dago puntako kirolaria izateko sakrifizioa ezinbestekoa dela. Sabinoren hitzetan, kirolariek monje bizitza izan behar dute, “lan egin eta gero, gorputza indarberritu behar du kirolariak. Zure gorputza zaintzeko gauza ez bazara, hobe duzu kirola uztea”. Espaloiaren beste aldean benetako profesionalak ditugu, horien artean, Baskoniako jokalaria den Perasovic nabarmendu du Sabinok. “Peras harrigarria da, goizeko hamarretan lanean eta arratsaldeko lauretan berdin. Kirolari ona izateko neurotikoa izan behar duzu, zure kirolak itsutu behar zaitu”.

Sabinorekin egin genuen elkarrizketan bi partaide berezi izan genituen, otxandiotarraren semeak, hain zuzen. Sendagilearen bizimodua gogorra da, beti etxetik urrun egoten da eta. Berak ez du uste horrela luzaro ibiliko denik. Semeei begiratu eta haxe luzatu digu, “norbere senitartekoei ordaintzen dute bizimodu geldiezin hau. Hauei esker eman diezaiek denbora kirolariei. Hau guztia aldatzeko asmoa daukat. Ez dut txirrindularitza utzi nahi, baina etxean egotea ere gustatzen zait”.

Hantxe utzi genuen Sabino Padilla, bere semeekin hizketan. Euskaraz, noski. Hantxe utzi genuen txapeldunak egiteko giza makina.

Ismael Diaz de Mendibil



Sabino Padillaren eskutik Miguel Indurain eta Martin Fiz txapeldunak

MIGUEL INDURAIN munduko txirrindularirik onena da. Bigarren tourra irabazi zuenean Etxabarriri haxe esan nion: “Indurainen errendimendua hobetu ezin dugunez, horri eutsi baino ez dugu egin behar”. Ez dut inoiz inorengan ikusi Miguelek duen ahalmen fisikorik, izugarria da. Horrela jarraituz gero, bostgarren tourra bereganatuko du gutxienez. Familiatik dator indarra Induraini.

Bere bizitza erabat bideratua badu ere, oso langilea izaten jarraitzen du nafarrak. Sakrifizio hitza sarritan aipatzen dugu, baina batek baino gehiagok ikusi beharko litzuke entrenamenduak. Txirrindularen gainean duen jarrera ezin hobea da, oso aerobikoa.

Hortaz, atarrabiarrak bi ahalmen ditu: batetik, lana; bestetik, sakrifizioa. Horietarik izan ezean, atzean geratu beharra.

Datozen urteotan ez da Miguel Indurain bezalakorik agertuko. Munduko mailaz ari naiz, gainera. Euskal Herrian Abraham Olano dugu, Miguelen antza duena, baina nafarrak ez du ordezkorik. Hori bai, Olano erlojuaren kontra ondo dabil, eta asko aurreratzen ari da.



MARTIN FIZ. Martinekin, orain zazpi urte hasi nintzen lanean. Aurtengo negua eta udaberria oso gogorrak izan dira guretzat baina fruituak udarekin batera jaso ditugu. Lanerako gogo izugarria du Martin Fizek. Ez da inoiz izan Cacho bezalako izarra. Garaipenak lanari esker lortu ditu, beraz. Atlantako Olinpiadetan domina sakeleratu nahi du, baina oso zaila da. Maratoian bi ordu eta hamar minutuetatik jaitea, aldiz, lasai asko lor dezake. Halere, fisikoki hainbat muga duenez, lan handia egin behar izan du. Negu gorrian jo eta ke ikusiko duzue entrenatzen Martin Gasteizko parkeetan zehar. Ez da batere erreza horrelakorik egitea. Egunsentia eta ilunabarra beti izaten ditu lagun Martintxok. Gasteiztarraren lana Miguelena bezain garrantzitsua da, Martin munduko onena ez bada ere. Are gehiago, ez du ahalmenik lehenengoa izateko. Horrexegatik du izugarritzko meritua Europako txapelduna izateak.

GEU
GASTEIZKO EUSKALDUNON
ELKARTEA

bar • restaurante
Portal del Rey 9
albéniz
GASTEIZ

Xabier
taberna
musika ona
eta giro
ezinhobea
Kutxileria 23
GASTEIZ



TXEROKI KIROLZABIA



GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	FAXA
ZERBITZU OROKORRAK	ARGIBIDEAK ETA HARRERATEGIA	Dato, 11	16 11 88	16 15 93
LURRALDE ANTOLAKUNTZA ETA INGURUGIROA	HIRI-HOBAKUNTZA (HIRITARREKIKO HARREMANAK)	Dato, 11	16 13 01	16 15 93
KULTURA		Machete plaza, z/g	16 12 75	16 12 76
O.K.U.S./DEMSAC	ADMINISTRAZIO-ATALA (OMIC)	Done Bikendi aldapa, z/g	16 12 40	16 12 51
HERRI-JARDUERA ETA LAN HARREMANETARAKO SAILA	EUSKARA	Espainia plaza, z/g	16 15 22	13 09 65
GIZARTE ONGIZATEA	ADMINISTRAZIO-ATALA	Espainia plaza, z/g	16 13 60	16 13 63
INFORMATIKA		Vera-Fajardo margolaria, 5	16 14 13	16 16 00
HEZKUNTZA	ARANBIZKARRAKO HAUR ESKOLA	José P. Ullibarri, z/g	28 16 35	
	EL PILARREKO HAUR ESKOLA	Caracas, 6	22 94 99	
	F.J. LANDABURU HAUR ESKOLA	F.J. Landaburu, z/g	28 35 45	
	HAURTZARO HAUR ESKOLA	Santa Maria kantoia, z/g	14 34 33	
	IZARRA-LA ESTRELLA HAUR ESKOLA	Astronomoak, z/g	28 44 95	
	OLARIZUKO HAUR ESKOLA	Dantzari plaza, 6	27 28 95	
	TXIMELETA HAUR ESKOLA	Ricardo Sacristán, z/g	22 46 34	
	SANTA LUZIAKO HAUR ESKOLA	Federico Baraibar, 17	28 82 25	
	TXAGORRITXUKO HAUR ESKOLA	Gasteiz hiribidea, 61	22 95 49	
	ZARAMAGAKO HAUR ESKOLA	Nafarroako erreg., 16-B	28 94 49	

